

# Bodovalle Meatzea
# La Corta de Bodovalle

*Centro de Interpretación Ambiental*
PEÑAS NEGRAS
*Ingurumen Interpretazioko Zentroa*

EUSKO JAURLARITZA — GOBIERNO VASCO

INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA, NEKAZARITZA ETA ARRANTZA SAILA

DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE, PLANIFICACIÓN TERRITORIAL, AGRICULTURA Y PESCA

Trianoko Mendietako burdina erromatarren garairako ustiatzen zen jada; hala ere, eskala handiko erauzketa 1876-1930 aldian egin zen (produkziorik handiena 1899. urtean lortu zuten). Bizkaiko mineralaren %90a aire zabalean erauzi zen, harrobi edo "korta" deiturikoetan.

Concha meatzea
Mina Concha (1964)



El hierro de los Montes de Triano se explotaba ya en la época de los romanos, aunque la extracción a gran escala se desarrolló entre 1876 y 1930 (el año de mayor producción fue 1899). El 90% del mineral de Bizkaia se extrajo a cielo abierto, en forma de canteras o cortas.



Franco-Belga konpainiaren laztabin mekanikoak
Barrenos mecánicos de la compañía Franco-Belga

Bodovalleko Meatzeak —Gallarta (Abanto-Zierbena)— ez du parerik Euskadin; izan ere, aire zabaleko meatzerik handiena eta itsas mailarekiko punturik baxuenean dagoena da. Antzinatik, jakina zen Bodovalleko mea edo minerala oso ona zela; beraz, XIX. mendearen amaieran, Franco-Belga konpainia meatze enblematikoetako bat ustiatzen hasi zen: Kontxa 2.a. Aire zabaleko erauzketa izugarri areagotu zen 1968tik aurrera, Agruminsa enpresak ustiategia hartu zuenean. Ustiapen handi haren ondorioz, Gallarta auzoaren zati handi bat desagertu zen.



La Corta eta Gallarta antzinako auzoa
La Corta y el barrio antiguo de Gallarta (1964)



Gallarta (1950)

La Corta de Bodovalle, en Gallarta (Abanto-Zierbena), es un enclave único en Euskadi, ya que se trata de la mina más grande y del punto más bajo a cielo abierto. La riqueza del mineral de Bodovalle era conocida desde la antigüedad, por lo que a finales del siglo XIX la compañía Franco-Belga empezó a explotar una de las minas más emblemáticas: Concha 2ª. La extracción a cielo abierto se incrementó de manera espectacular a partir de 1968, cuando la empresa Agruminsa se hizo cargo de la explotación, lo que provocó la desaparición de la mayor parte del barrio de Gallarta.



La Corta eta El Campillo industrialdea
La Corta y polígono industrial El Campillo

1984 aldera, lurrazaleko lanei utzi eta lur azpiko galerietan egiten hasi zen lan guztia; bertan, ganbera handiak egiten ziren, katedral baten tamainakoak. Galeriek, guztira 50 bat kilometro dituzte, eta tunelik luzeenak Las Carreras auzoraino (Abanto-Zierbena) iristen dira. Bizkaian jardunean egon zen azken burdina-meatzea izan zen, eta 1993an itxi zuten, ez zelako errentagarria.



Lehergaiak ipintzen galeria batean
Colocación de explosivos en una galería (1987)

Hacia 1984 se abandonaron las labores en superficie y el trabajo se concentró en las galerías subterráneas, donde se excavaban grandes cámaras que podrían albergar hasta una catedral. La suma de todas las galerías ronda los 50 kms y los túneles más largos llegan hasta Las Carreras (Abanto-Zierbena). Fue la última mina de hierro en funcionamiento de Bizkaia y se cerró por falta de rentabilidad en el año 1993.



Orconera konpainiaren zama-lanak
Labores de carga de la compañía Orconera (1965)

Euskal Herriko Meatzaritzaren Museoa
Museo de la Minería del País Vasco (Gallarta)



# Nola iritsi • Accesos

Euskal Herriko Meatzaritzaren Museoraino hurbiltzea da errazena. Ekipamendu hau Bodovalleko Meatzearen ondoan dago. PEÑAS NEGRAS Zentrotik ordubete baino pixka bat gehiagotan irits daiteke. Horretarako, 2. ibilbidea egin behar da (zutoin marroiekin seinaleztatuta dago) edo, bestela, golf-zelaiaren ondotik igarotzen den eta La Arboleda eta Gallarta lotzen dituen errepideraino jaitsi.

La opción más sencilla es acercarse hasta el Museo de la Minería del País Vasco, situado junto a la Corta de Bodovalle. Desde el Centro PEÑAS NEGRAS se puede llegar en poco más de 1 hora, para lo que hay seguir el itinerario número 2 (señalizado con postes de color marrón) o bajar hasta la carretera que pasa junto al campo de golf y que une La Arboleda y Gallarta.



Kare-harrizko orratzak Cristina meatzean
Agujas de caliza en la mina Cristina (Abanto-Zierbena)

# Kokapen mapa • Mapa de situación





Centro de Interpretación Ambiental
PEÑAS NEGRAS
Ingurumen Interpretazioko Zentroa

La Arboleda-Muskiz basobidea 1,6 km
48530 ORTUELLA (BIZKAIA)
Tfno.: 946 338 097


## Ikurrak / *Signos*

- Argibidea / *Información*
- Golf zelaia / *Campo de golf*
- Atseden-lekua / *Área recreativa*
- Iturria / *Fuente*
- Meatze-multzoa / *Conjunto minero*
- Euskal Herriko Meatze Museoa / *Museo de la Minería del País Vasco*